

Perlak saileko hamazazpi film lehiatuko dira Udalak babesten duen Donostia Hiria Publikoaren Saria eskuratzeko

Udalak eta Zinemaldiak doako 1.000 sarrera jarri dituzte langabeen eskura

Perlak saileko 17 film lehiatuko dira Udalak zortzigarren urtez jarraian babesten duen Donostia Hiria Publikoaren Saria eskuratzeko. Udalak donostiarrei egindako omenaldi gisa planteatzen du golardoa, haiek baitira bozketa bidez saria ematen dutenak.

Armani Beauty-k babestutako Perlak saileko obrek nazioarteko beste zinema-jaialdi batzuetan kritikaren txaloak edo sariak jaso dituzte. Victoria Eugenia antzokian gauzatuko dira film horien emanaldiak eta filmaren lehenengo emanaldira bertaratutako ikusleek aukeratuko dute irabazlea. Saria Zinemaldiaren amaiera-galan emango da.

Donostia Hiria Publikoaren Sariak bi sari hartzen ditu barnean: batetik, film onenaren saria, 50.000 euroz hornitua; eta bestetik, Europako film onenaren saria, 20.000 eurokoa. Modu parte-hartzailean ematen den sari honen bidez, hiriarekin lotuta geratuko dira betiko bi filmak.

Donostiako alkate Eneko Goiak nabarmendu duenez, "ikus-entzuleak dira gure Zinemaldiaren arima", eta, horrenbestez, Publikoaren Saria "zinema-aretoak betetzen dituztenen gustuaren adierazpena da". Goiak azpimarratu du, halaber, Perlak sailak urteko film onenetako batzuek gozatzeko aukera ematen duela, "eta horregatik, herritarrek gehien eskatzen eta onartzen duten ataletako bat da".

Alkateak adierazi duenez, Zinemaldia "gure hiria nazioartean nabarmentzeko urteko hitzorduetako bat da". Horregatik, bere konfiantza eta babesa adierazi du mailari eusteko eta, ahal den neurrian, urtero pixkanaka hobetzeko. Aldi berean, Zinemaldiak zientziarekin, gastronomiarekin eta beste esparru batzuekin duen lankidetzaren dinamikaren balioa ere nabarmendu du, eta horregatik, Zinemaldia "parte emaitza indibiduala hobetzen duen eragile biderkatzaile" da.

Iaz, Santiagok Mitreren *Argentina, 1985* lanak eskuratu zuen film onenaren Donostia Hiria Publikoaren Saria –Zinemaldian aurkeztu baino lehen, Veneziako zinema-jaialdian lehiatu zen–, eta Rodrigo Sorogoyenek irabazi zuen, berriz, Europako film onenaren saria, zehazki, *As bestas / The Beasts* filmarekin –aurretik Cannes Première sailean aurkeztu zen–.

Doako sarrerak langabeentzat

Bestalde, Zinemaldiak eta Udalak Zinemaldirako 1.000 txartel banatu dituzte premia ekonomiko handienak dituzten kolektiboen artean, Kursalen eta Belodromoan filmak ikusteko aukera izan dezaten. Joan den astean Donostian erroldatutako 18 urte gorako langabeen artean banatu ziren tiketak.

José Luis Rebordinos Zinemaldiko zuzendariak Udalak ekimen honetan gauzatutako lankidetzaz eskertu du, kolektibo behartsuetako pertsonak ere Zinemaldiaren esperientzia bizitzeko helburua izaki. "Beti sinetsi izan dut kultura, oro har eta, zinema bereziki, gutxien duten pertsonentzako tresna baliotsua dela: zentzu kritikoa garatzea ahalbidetzen du, botere-abusuari aurre egiteko baliabideak ematen ditu eta zeruertzak handitzen ditu. Hori dela-eta, oso garrantzitsua iruditzen zait Donostiako Udalaren eta Zinemaldiaren baterako ekimen hau", adierazi du.